MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# XV.argazki lehiaketa abian da!

2016/03/10

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kirol Zerbitzuak martxan jarri du argazki lehiaketaren XV.edizioa. Aurtengo gaia "jarduera fisikoa natur ingurunean" izango da eta maiatzaren 20a bitarte aurkeztu ahal izango dira lanak.

Edizio honetan bada berrikuntza nagusi bat. Argazki irabazleak 100€ko saria jasotzeaz gain, argazkia datorren ikasturteko egutegian erabiliko du Kirol Zerbitzuak. Bigarren aldaketa bat ere bada, orain arte eskaini den bilduma onenaren lehiaketa desagertuko egingo da.

Argazki guztiak MONDRAGON UNIBERTSIATEko Kirol Zerbitzuaren webgunean ikusgai jarriko dira, *ekintza osagarriak/argazki lehiaketa* atalean.

Hartu argazki kamera eta zoaz ideia on bati argazkia ateratzera!




XV.argakzi lehiaketaren kartela



# XV.ARGAZKI LEHIAKETA

**GAIA:** Jarduera fisikoa natur ingurunean

**SARIA:**

-100€ argazki onenari.

- Argazki irabazlea Kirol Zerbitzuaren egutegian erabiliko da.

**EPEA:** Maiatzak 20, ostirala

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Kirol zerbitzua
servicio de deportes

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
**KIROL ZERBITZUA**
Loramendi, 4 (ARRASATE)
Tel.: 943.712.033 Faxa: 943.799.797
E-mail: kirolak@mondragon.edu

## OINARRI ARAUAK

**1. PARTE HARTZAILEAK**
15/16 ikasturtean MONDRAGON UNIBERTSIATEAn matrikulatutako ikasleak eta bertako langileak.

**2. GAIA**
Jarduera fisikoa natur ingurunean.

**3. SARIA**
- 100€ argazki onenaren saria.
- Argazki irabazlearekin MONDRAGON UNIBERTSIATEko Kirol Zerbitzuak 16/17 ikasturteko egutegia aterako du.

**4. LANAREN BETEBEHARRAK**
- Gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake egile bakoitzak, kolore edota zuri-beltzean.
- Argazki bakoitzak izenburua eta azalpena izan behar du.
- Argazkiak jatorrizkoak eta esklusiboak izan behar dute.
  Argazkiak globalki ukitzea onartuko bada ere, ezingo dira gehitu edo kendu bere jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak.

**5. LANAK AURKEZTEA**
- Artxibo guztiak JPEG formatukoak izango dira eta ahalik eta kalitate handiena izan behar dute.
- Argazkiak *kirolak@mondragon.edu* helbide elektronikora bidalita edo USB batean aurkeztuko dira.
- Argazki guztiak MONDRAGON UNIBERTSIATEko Kirol Zerbitzuaren webgunean izango dira ikusgai.

**6. AURKEZTEKO EPEA**
2016ko maiatzak 20, ostirala.

**7. EPAIMAHAIA**
- Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia.

**8.EBAZPENA**
Argazki eta bilduma irabazleak zeintzuk diren maiatzaren 26an argitaratuko dira Kirol Zerbitzuaren webgunean.

**9. JABETZA**
Aurkeztutako argazki guztien jabetza MU-k gordeko du. Baita mugarik gabe argitaratu edota erreproduzitzeko eskubidea ere.

*Informazio gehiago:*
*www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua*